



EGUBERRI-POSTALEN X. LEHIAKETA

OINARRIAK

1.- PARTE-HARTZAILEAK

Eguberri-postalen lehiaketa honetan edozein pertsonak parte har dezake, hala nahi badu, betiere adinaren arabera dagokion kategorian:

- a) Haurren kategoria: 7 urte bitartean.
- b) Gazteen kategoria: 8 eta 16 urte bitartean.
- c) Helduen kategoria: 17 urtetatik gora.

Lanen gaia Eguberria eta haren jaia izango da, eta egile bakoitzak bi lan baino ezingo ditu aurkeztu.

Postalaren diseinua haur kategorian eskuz egina izan beharko da (errotuladorea, argizari-margoak, akuarelak...); beste bi kategorietan eskuz zein formatu digitalean aurkeztu ahal izango dira.

Originaltasuna, erabilitako teknika eta balio ez sexista ez diskriminatzaileen defentsa eta gizon eta emakumeen estereotipo tradizionalak haustea balioetsiko da.

2.- AURKEZPENA

Postalak jasotzeko epea **2021eko abenduaren 15ean** bukatuko da.

Lanek, teknika librean eginda, ezingo dituzte gainditu horretarako banatuko den orriaren laukiaren neurriak (17cm x 16cm).

Marrazki bakoitzarekin batera ondorengo datuak adieraziko dira, **erantsita doa eskabidea**:

Pertsonaren izen-abizenak
Jaiotze-data
Helbidea
Telefono zenbakia.

Lanak postaz, posta elektronikoz, edota zuzenean aurkeztu beharko dira Kanpezuko Udalean; udal bulegoetan, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara; liburutegian, astelehenetik ostiralera, arratsalde; edota erregistroa@kanpezu.eus helbidean, "2021eko EGUBERRI-POSTALEN LEHIAKETA" adieraziz.

Formatu digitalean egindako lanek ezingo dituzte emandako neurriak gainditu 17cmX16cm, bestela ez dira aintzat hartuko. Esandako lanak .jpg edo .pdf formatuetan aurkeztu beharko dira, bai helbide elektronikoz bai paperean aurkeztuz.

3.- SARIAK ETA KATEGORIAK

Adinaren arabeko kategoriak osatuko dira:

- 7 urte bitarteko kategoria
- 8 eta 16 urte bitarteko kategoria
- 17 urtetatik gorako kategoria



Aurkeztutako marrazki guztiak Kanpezuko Kultur Etxean egongo dira ikusgai; baita ere horiek zabaltzeko Kanpezuko Udalak erabaki dezakeen beste bideren batez.

Kategoria bakoitzeko sari bana emango da.

Udalak edozein kategoriatan lehiaketa hutsik uzteko ahalmena beretzat gordetzen du.

Saritutako postalekin Udaleko Eguberri-postal ofiziala egin daiteke, hala nola, bestelako dibulgazio-materiala (egutegiak, orri-banatzailleak, etab.).

4.- IRABAZLEEI JAKINARAZPENA

Irabazleei zuzenean jakinaraziko zaie emandako telefonoaren bidez.

5.- IRABAZI EZ DUTEN POSTALAK ITZULTZEA

2022ko Urtarrilaren 10etik 14ra, postala jaso nahi duten guztiak Udaletxetik pasa daitezke bila.

6.- DATU PERTSONALEN BABESA

Parte-hartze formularioaren bidez bildutako datuak tratatuko dira lehiaketaren oinarrien arabera, ez utziz edo komunikatuz hirugarren bati.

Oraingo eskarian jasotako datu pertsonalak interesatuaren baimenarekin jasotzen dira, eta automatizatutako tratamendua izango dute baita Kanpezuko Udalaren Informazio Sistemari gehituko ere. Aipaturiko datuen erabilera udal-kudeaketara murriztuko da, Datu Pertsonalak Babesteko 1999ko abenduaren 13ko Lege Organikoan xedatutakoa betez haien lagapena edo komunikazioa beste Administrazio Publiko batzuei edo hirugarrenei egin ahalko da. Erabiltzaileek, datuetara sartu, horiek zuzendu, ezabatu eta baliogabetzeko eskubidea izango dute Hiritarren Arreta Zerbitzuaren bidez (HAZ).

7.- ONARPENA

Lehiaketa honetan parte-hartzeak lehiaketaren oinarriak eta epaimahaiaren erabaki apelaezina onartzea suposatzen du.

Kanpezuko Udalak eta Epaimahaiak gordetzen dute, oraingo oinarrietan araututa egon gabe ere, lehiaketaren arrakasta handienari laguntzen dion edozein ekimen hartzeko eskubidea; haien erabakien kontra erreklamaziorik ezin izango da aurkeztu.